



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 13a

113. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00011. Foru Legea, Lurralde Kohesiorako eta Kultura eta Kirol Departamentuetarako aparteko kreditu bat ematen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—10-22/PRO-00016. Foru Legea, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—10-22/MOC-00082. Erabakia. Horren bidez, dei egiten da legeria indarduna betetzera Nafarroan sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeetan, eta ikastetxeek beraiek eta Nafarroako Gobernuak zeregin honetan duten erantzukizunera. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—10-22/MOC-00086. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sostengua eman diezaien biodibertsitatearen eta ingurumenaren errespetuarekin bateragarri diren gizarte- eta udal-ekimeneko energia-komunitateetarako proiektu guztiei. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—10-22/MOC-00087. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratu dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—10-22/MOC-00088. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira izapideak amaitu ditzaten Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatzeko aldera. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—10-22/MOC-00089. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—10-22/MOC-00090. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen dira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integraztaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-22/LEY-00011. Foru Legea, Lurralde Kohesiorako eta Kultura eta Kirol Departamentuetarako aparteko kreditu bat ematen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Lurralde Kohesiorako eta Kultura eta Kirol Departamentuetarako aparteko kreditu bat ematen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Lurralde Kohesiorako eta Kultura eta Kirol Departamentuetarako aparteko kreditu bat ematen duena**

#### HITZAURREA

Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian ikusi da finantzaketa behar dela trazadura berri bat eraikitzeke Berako Kalbario erreken lurpeko tartean, eta ez dagoela horretarako krediturik.

Joan den urtarrilaren 10ean, euri-erauntsi baten ondoren, Kalbario errekan zulo bat egin zen erreka lurperatzen den tartean hasieran. Horren ondorioz, urak arrastaka eraman zituen zenbait material ubidean barrena, eta horrek ekarri zuen material horiek eta emariak ibaian behera piltzea, Plaza Zaharreko etxebizitzaren multzoaren hegoaldean. Hori horrela, aipatu plazan kokatutako etxebizitzaren eraikin bat aldi baterako hustu behar izan zuten, ubideak gainezka egin zuelako eta egiturak kalteak jasan zitzaizkela.

Espedientean jasota dago Herri-lanen Zuzendaritza Nagusiaren txostena, non eragindako kalteak eta egindako entseguak deskribatzen baitira, eta zera ondorioztatzen da: etxebizitzek ez dute inolako patologiarik zimenduetan, baina

beharrezkotzat jotzen da berriz ere eraikitzea Kalbario erreken bideratzearen eraispenak kaltetutako zatia.

Exekuzio-proiektu bat idatzi da Kalbario erreka lurperatzeko trazadura berria eraikitzeke obrak zehaztu daitezkeen.

Premiazkoa da proiektu hau gauzatzea; izan ere, erauntsiak errepikatzen badira, kalte larriak eragin ditzakete erreken egungo egoeraren ondorioz, nabarmen murriztu baita haren urgarriorako gaitasuna.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian ez dago jarduketa horiek gauzatzeko finantzaketarik.

Horrenbestez, proposatzen da partida berri bat sortzea Nafarroako 2022ko gastuen aurrekontuan Lurralde Kohesiorako Departamenturako, jarduketa hori diruz laguntzeko.

Bestalde, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian agerian jarri da Erriberriko El Fosal plaza eta inguruaren urbanizazioarako lan osagarriak eta Atarrabiako Nafarroako Gorteak plazako haur parkea ezartzeko lanak finantzatzeko beharra. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legean aurrekontu partida hau jasotzen da: 710006 71500 7609 414102 "(E) Erriberriko Udalarentzako transferentzia: herri-lurretako ureztalurrak", 85.000 euroko hasierako kreditua duena. Onuraduna Erriberriko Udala da. Erriberriko Udalak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren 316.709,57 euroko laguntza bat du "El Fosal plazaren eta inguruaren berrantolamendua eta sarbidea hobetzea, I. fasea" proiektuaren lanak finantzatzeko. Lan horiek egiterakoan, aipatu Ministerioak diruz lagundutako proiektuan aurreikusitako lanen osagarri diren beste lan batzuk egiteko beharra sortu

da. Lan osagarri horiek finantzatzeko xedez, proposatzen da partida izendun bat sortzea Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuetan eta horri 85.000 euroko zuzkidura ematea aparteko kreditu baten bidez.

Halaber, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan honako gastuen aurrekontuko partida hau jasotzen da: 210001 21300 7609 45B146 (E) "Atarrabiako Udalarentzako transferentzia, Antso VI.a Jakituna plaza, haur parkea estaltzea", 40.000 euroko hasierako kredituarekin. Onuraduna Atarrabiako Udala da. Ikusi da ezinezkoa dela teknikoki Atarrabiako Antso VI.a Jakituna plazako haur parkea estaltzeko inbertsioari ekitea, alde horretan lur azpiko aparkaleku bat dagoelako eta horrek eragozten duelako estalduraren egiturak behar dituen zimenduak egitea. Hala, Atarrabiako Nafarroako Gorteen plazako haur parkea estaltzeko beharra sortu da, eta horretarako proposatzen da partida izendun bat sortzea Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian eta 40.000 euroko zuzkidura ematea aparteko kreditu baten bidez.

Aurreko guztia ikusirik, aipatu inbertsioak ezin dira hurrengo ekitaldira atzeratu, eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak ez du finantzabiderik horiek egin ahal izateko. Hori dela eta, proposatzen da Nafarroako 2022rako gastuen aurrekontuan partida bana sortzea Lurralde Kohesiorako Departamentuan.

Azkenik, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan honako gastuen aurrekontuko partida hau jasotzen da: A50001 A5400 7609 336154 (E) "Lapoblación-Meanoko Udalarentzako transferentzia, Meanoko pilotalekua egiteko 2. faserako", 30.000 euroko hasierako kredituarekin. Onuraduna Lapoblación-Meanoko Udala da. Egiaztatu da ezinezkoa dela aipatu inbertsioa bere osotasunean egitea; izan ere, partidaren xede den frontoia-

ren lehenengo faserik ez dago. Bada aukera inbertsio horren fase bati ekiteko eta, hori dela eta, proposatzen da xede horretarako partida izendun bat sortzea Nafarroako Kirolaren Institutuan, 30.000 eurokoa, aparteko kreditu batekin finantzatzeko dena.

Inbertsio hori ezin da beste ekitaldi batera atzeratu eta Nafarroako Kirolaren Institutuak ez dauka egin ahal izateko finantzaketarik. Hori dela eta, proposatzen da Nafarroako 2022rako gastuen aurrekontuan partida bat sortzea Kultura eta Kirol Departamentuan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Bigarren paragrafoak xedatzen duenez, aparteko kreditu hori ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kontura finantzatzen ahalko da, diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusiak direla ere.

Era berean, foru lege bidez partida izendunak sortzeak udal horiei laguntzak zuzenean ematea ahalbidetzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

**1. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea Lurralde Kohesiorako Departamenturako.

2022ko ekitaldian 623.000 euroko kreditu bat ematen da, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 452300 Kalbario errekaen trazadura berria Beran	498.000 euro
210001 21300 7609 261679 Erriberriko Udala. El Fosal plaza eta inguruaren urbanizaziorako lan osagarriak	85.000 euro
210001 21300 7609 45B166 Atarrabiako Udala. Nafarroako Gorteak plazako haur parkea estaltzea	40.000 euro

**2. artikulua.** Lurrealde Kohesiorako Departamenturako aparteko kredituaren finantzaketa.

623.000 euroko aparteko kreditu hori finantzatuko da indarrean dagoen gastu aurrekontuko "Itzulketak" izeneko 110003 11500 3800 000000 partidaren dagoen kreditu erabilgarriaren kargura 498.000 euroko zenbatekoz, 85.000 euroko kreditu erabilgarria duen 710006 71500 7609 414102 "(E) Erriberriko Udalarentzako transferentzia: herri-lurretako ureztalurrak" partidaren kargura, eta 40.000 euroko kreditu erabilgarria duen

210001 21300 7609 45B146 (E) "Atarrabiako Udalarentzako transferentzia, Antso VI.a Jakituna plaza, haur parkea estaltzea" partidaren kargura.

**3. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea Kultura eta Kirol Departamenturako.

2022ko ekitaldian 30.000 euroko kreditu bat ematen da, Kultura eta Kirol Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
A50001 A5400 7609 336154 Lapoblación-Meanoko frontoia estaltzeko eta beste jarduketa batzuk egiteko proiektuaren idazketa.	30.000 euro

**4. artikulua.** Kultura eta Kirol Departamenturako aparteko kredituaren finantzaketa.

Aparteko kreditu honen 30.000 euroko kopurua indarrean dagoen gastu aurrekontuko "Lapoblación-Meanoko Udalarentzako transferentzia, Meanoko pilotalekua egiteko 2. faserako" izeneko

partidan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**10-22/PRO-00016. Foru Legea, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak**

**ATARIKOA**

Aparteko une bati aurre egin beharrean gaude, gehienbat Ukrainako gerraren eta horrek mundu-mailan sortu dituen ondorioen kariatz; halatan, energiaren eta lehengaien merkatuek kolpe handia nozitu badute ere, aipatu ondorioak gure ekonomia sektore guztietara hedatzen dira.

Guda horren ondorio nagusietako bat energia-kostuen gorakada ari da izaten, zeina ekoizpen-kostu orokorren gorakada eragiten ari baita mundu-mailan, baina batez ere European, hala nola Alemaniako ekonomian (% 7,5), Italiakoan (% 8,4), Austriakoan (% 9,3) edo Bulgariakoan (% 17,3). Espainiako estatuaren kasuan, % 10,4 ingurukoa izan da joan den abuztuan gehikuntza-tasa, eta badirudi joera dela datozen hilabeteetan geldotzea, uztailean goi-erpinera (% 10,8) iritsi ondoren.

Oro har, eraikuntzaren sektoreak eragin bikoitza jasan du: lehengaien prezio-gorakadarena eta horietakoren baten stock-etenarena. Eragin oso

berretua jasan dute etxebizitza babestuak sustatzeko jarduketek, aurtan nabarmenki mantsotu baita etxebizitza-sustapena.

Nafarroan, 2021eko urtarriletik abuztura bitartean behin-behineko kalifikazioa guztira 453 etxebizitza babesturi eman zitzaizen (barne harturik babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak); 2022. urteko epe berean, ordea, kalifikazioak 106 etxebizitzari bakarrik eman zitzaizkien; alegia, iaz sustatu zirenen laurdenei, ozta-ozta. Etxebizitza librearen sustapenean ere, nahiz eta proportzio txikiagoan, beherakada ohargarria gertatu da, 2021ean kalifikaturiko 1707 etxebizitza libreetatik 1.233 etxebizitzatarako jaitziera gertatu baita; hots, % 30eko gutxiagotzea.

Etxebizitza babestuaren eskaintzak izandako beherakada da kezagarriena, horixe izaki bizibide mugatuenak dituzten familia eta pertsonentzako etxebizitza-mota, bermatzen duena etxebizitza eskuraeraz bat lortu ahal izatea.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 10. artikulua xedatuaren ildotik, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza babesturako modulu ponderatu eta ponderatugabeen eguneraketa zehaztea. Adierazitako egoeraren apartekotasuna dela-eta, beharrezkoa gertatzen da modulu horiek gaurkotzea indar-hartze berehalakoa izanen duen lege-mailako arau baten bitartez, etxebizitza babestuaren sustapen-paralizatzea eragotzita.

**Artikulu bakarra.** Etxebizitza babestuen 2023ko gehieneko salmenta-prezioa.

1. Etxebizitza babestuen eta horien elementu erantsien 2023ko gehieneko salmenta-prezioa zehazteko, ez da aplikatzekoa izanen Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 10.1 artikulua

ko a) eta d) letretan xedatzen dena. Aplikatu beharrekoa honakoa izanen da:

a) Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.456,96 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

b) Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2023an aplikatuko zaien modulu ponderatugabea 1.398,68 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan ezarritako modulu ponderatua halaber izanen zaie aplikatzekoa behin-behineko kalifikaziorako eskea foru lege honen indarraldia hasten denetik 2022ko abenduaren 31ra arteko bitartean aurkezten duten etxebizitza babestuaren espedienteei.

**Azken xedapena.** Indarrean sartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean sartuko da argitaratu eta biharamunean.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-22/MOC-00082. Erabakia. Horren bidez, dei egiten da legeria indarduna betetzera Nafarroan sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeetan, eta ikastetxeek beraiek eta Nafarroako Gobernuak zeregin honetan duten erantzukizunera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, dei egiten da legeria indarduna betetzera Nafarroan sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeetan, eta ikastetxeek beraiek eta Nafarroako Gobernuak zeregin honetan duten erantzukizunera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du legeria indarduna betetzera Nafarroan sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeetan, eta ikastetxeek beraiek eta Nafarroako Gobernuak zeregin honetan duten erantzukizunera.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du amaiera eman diezaion, ahalik eta azkarren, araudi-urraketako administrazio-prozedurari, behar diren neurriak hartuz hezkidetzaren bermatzeko edo, kasua bada, finantziarioa ikasturte honetan bertan galtzeko, kon-tuan hartuz hitzarmen horiek ezin direla inola era luzatu 17/2012 Foru Legean oinarrituta, zeinak aukera hori derrigorrezko etapetarako baizik ez baitu ematen.

3. Nafarroako Parlamentuak errepikatzen du sexuaren arabera bereizketan oinarritutako hezkuntza-eredua baztertzaila eta hezkidetzaren aurkakoa dela, eta adierazten du berdintasunean oinarritutako balioak eta harreman-ereduak bultzatzeko konpromisoa.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa betetze aldera, ez dezan itundu derrigorrezkoa ez den irakaskuntzarik ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekin.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du men egin diezaion eta bete dezan LOMLOEn eta bereziki Gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen 17/2012 Foru Legean ezarritakoa, hezkuntza misto eta hezkidetzazkoaren oinarritzko printzipioen garapenari dagokionez, halako moduz non printzipio horiek betetzen ez dituzten ikastetxe pribatuekin ez baita irakaskuntzarik itunduko”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00086. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sostengua eman diezaien biodibertsitatearen eta ingurumenaren errespetuarekin bateragarri diren gizarte- eta udal-ekimene-ko energia-komunitateetarako proiektu guztiei.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sostengua eman diezaien biodibertsitatearen eta ingurumenaren errespetuarekin bateragarri diren gizarte- eta udal-ekimene-ko energia-komunitateetarako proiektu guztiei”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sostengua eman diezaien biodibertsitatearen eta ingurumenaren errespetuarekin bateragarri diren gizarte- eta udal-ekimene-ko energia-komunitateetarako proiektu guztiei”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**10-22/MOC-00087. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklarazio dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklarazio dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Magnesitas Navarras-ek Artesiaga aldean (Esteribar-Baztan, Nafarroa) duen magnesita ustiatzeko proiektua foru intereseko inbertsio deklaratu izan dadin”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**10-22/MOC-00088. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira izapideak amaitu ditzaten Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatze aldera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira izapideak amaitu ditzaten Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu, ahalik eta lasterren amaitu ditzaten Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa Nafarroako Foru Komunitateari egitea desblokeatuko duten izapideak”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00089. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu, beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00090. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen dira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen dira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du muturreko taldeek jaietako gunek eta aldiak propa-

ganda politikorako erabiltzea eta Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen ditu lan egin dezaten festetan zehar bizikidetasuna hobetzeko eta lortzeko festaguneak izatea anitzak, integratzaileak eta baimendu gabeko propaganda politikorik, bandalistorik eta gorroto eta muturreko mezurik gabeak, bai eta terrorismoagatik eta gisako delituengatik preso daudenak omentzeko eta goraiatzeko ekintzarik gabeak ere. Helburu horrekin, premiatzen ditu eremu publikoetatik berehala ken dezaten asmo horren aurka doan mezu oro”.

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



